

Aljerian jakile



Txomin Peillen Karrikaburu*

Aljeliar borroken azalpena ematen dut 1930.an hasi-eta, nola, kristau demokratak izan ezik, frantses alderdi guztiek ez zuten Arjeliaren arazoa ulertu; gero nola aljeriar iraultzak indigenatoa eta feudal sistema desegin zituen. Ikusi ditudan torturen eta mendekuen lekukotasuna ematen dut, baita jendeak sendatzen Dohanikako Medikuntza Zerbitzuan lan egin nuen.

Giltza-Hitzak: Kolonialismoa. FLN. MNA. Torturak. Mendekuak. AMG (Assistance Médicale Gratuite).

Je décris les luttes pour l'indépendance algérienne dès 1930 et l'incompréhension totale du problème algérien chez les politiciens français à l'exception des démocrates-chrétiens du MRP. et comment la révolution algérienne détruisit les systèmes féodaux et l'indigénat. Je témoigne des tortures et des représailles que je vis et raconte mon activité d'AMG (Assistance médicale gratuite).

Mots Clés: Colonialisme. FLN. MNA. Tortures. Représailles. AMG (Assistance Médicale Gratuite).

Tras una descripción de las luchas argelinas a partir de 1930 y de la incomprensión total del problema argelino por parte de los políticos franceses con exclusión de los demócratas cristianos, cuento como la revolución argelina destruyó los sistemas feudales y el indigenato. Doy testimonios de torturas y represalias que presencié y de mi actividad en la Beneficiencia Medical Gratuita.

Palabras Clave: Colonialismo. FLN. MNA. Torturas. Venganzas. AMG (Assistance Médicale Gratuite).

* 5 chemin d'Arancette. F-64100 Baiona.

ALJERIAREN EZAGUTZA

Jakilea izan nintzen, bai ikusle eta entzule. Haurtzaroan zitzaidan Ipar Afrikako kulturen ganako erakarpema piztu. Orduan, aitzin ezagutza horretan bi iturri izan nituen bata *Ligue Maritime et Coloniale* delakoaren propaganda eta oso bestelakoa bainan apuribat exotikoa nire Lorraine Bentaberriko lehengusu soldadu ohiak kontatu zizkidanak.

Nire begiz ikusia eta entzuna gogora ekarriz, *Aldjezairia Askatuta* liburua 1962.an idatzi nuen, askoz berantago *Hor Dagok* argitaratu zuen 1977.an, baina zati batzuk *Eganen* eta *Saioak* aldizkarietan eman ziren baita komunista batek Miguel Azurmendi Intxaustik *Saioak* izeneko aldizkarian nire liburu horren hasiera argitaratu zidan. Lan honetan oroitzapen horik berriitu ditut eta denbora berean aljeriar nazionalismoaz historia txiki bat eskaintzen dizuet.

KOLONIALISMOA ZER ZEN

Iraultza hasi zenean, hirietan administrazio mixto bat zegoen, musulmanak zinegotzi izan zitezkeen, baina ez auzapez, gainera gehiengoa izanik ere udalean gutiengoan edukitzen ziren. Herrixketan berriz feudal tankerako egiturak ziren. Aljeriratu nintzenean 1959.an jadanik turkoek jarri feudal sistema F. L. N.- ek suntsitua zuen.

Adibide ona Aljeria, guk jasaten dugun inperialismo asimilatzailea, kolonialismoa baino maltzurrago eta gogorrago dela ikusteko. Kolonialismoak ez zuen ohiturazko gizarte egitura aldatzen. Kultura aldetik arabiera ez zen debekatua, idatzia zen, eskola bakanetan baita koran dotrinan irakatsia eta musulman administrazioan erabilia. Arabiera inposatu zitzaien berberoei ere -Uharan aldeanlekuka tamazghita hizkuntza galarazi eta denetan turkiera ezabatu. Izan ere bi administrazio baziren bata frantsesentzat, frantses jakobinoa, bestea musulmantzat, feudala edo hirietan mixtoa.

Musulman administrazioa, turkoek jarria, hierarkiaduna zen. Herrixka guzietan *Caid* izeneko batek auzapez baten boterea zeukan, herrixkaren eguneroko egitekoen eramateko. Haren gainetik eta tribu bakoitzaren buru (gure sektorean Uled Abdallah delakoak) Aga bazegoen. Agak botere handiak zituen esate baterako zergak biltzen zituen eta noski, bere zati ederra gordetzen. Gehienek beren jauregitxoa eraikitzen zuten. Infirmier-major egon nintzen Taogriteko gure herrixkan honelako Aga eta haren palazioa ikusi nituen. Herrixkako edozein frantsesen etxea baino askoz ederragoa eta handiagoa zen jauregia.

Zergen biltzetik kanpo, bestalde Agak Erregistro Zibila atxikitzen zuen eta sosaren trukean, haur sortu berrien izenak hartzen. Aga Brahimi Uled Abdallahkoen Aga zen eta musulmanek kontatu zidatenez, hiru irtenbide, hiru deklarazio mota zeuden. Dirua zuenak, ordaintzen zuen eta haurra erregistratua, deklaratua zen. Dirurik ez zuenak eta andre pollita, andre hura Agaren gana bidaltzen zuen ohean ordain zezan diruz ezin zuena. Zoritxarrez dirurik ez eta andrea itsu-

siegiz haurra ez zen deklaritzen, ez zeukan nortasunik, beraz zernahitarako erabil zitekeen. Haietako anitzek izen bitxia zeramaten Sanpi, Sanbi eta hau zen frantsesezko sigla bat S.N.P. Sans Nom Patronymique.

Aga Brahimik musulmanei lege zaharreko zigor kodea aplikatzen zieten, erran nahi baita lehen ohointzan hogeitak makila ukaldi, bigarrenean berrogei. Gizon handia zen, morrosko bat eta lehen lapurretan zauritua zena, sarritan bigarrenean edo hirugarrenean hilik. Herrixkako musulmanek zioten horregatik gauzak kanpoan uzten ahal genituela, Brahimik lapurketaz sendatu omen zituelako. Aga hori ez zen jatorriz noblea, Taogriteko herriko mutila, algoazila zen eta handi zelako frantsesek hartarako hautatua.

Bizpalauetan gertatu nintzen karrikan Agarekin. Elkar agurtzen genuen, baina gizonak haren aurrean belaunikatzen ziren eta andreek haren sorbaldan musu bat ipintzen. Gerrate garaian andaluz itxura zuen bere jauregi txurien lasai egon zen, apika, felaga delakoei zerga ordaintzen zielako, hori zen zurrumurrua. Behin medikuarekin joan ginen haren andre baten haur erditzen laguntzeko.

Kode zibila ordea, zerek, musulman notariak kontrolatzen zuten, Kadi izenekoak, eta hirietan baziren musulmanentzat epaitegi bereziak arabieraz funtzionatzen zutenak. Ezkontzak ez zituen Agak egiten baina Kadiak, hots musulman kodeak eta herrietako ohiturak ezagutzen zituenak.

Ezagutu ditudan Dahra mendietan hiru jende kasta zegoen eta beren artean bakarrik kurutzatzen zirenak, alde batetik dotea emazteari emanaz *kabila* ondoko eta turko ondoko *korugli* nekazariak, dotea neskaren aitari emanaz *arabe mulato* erdi nomaden artean. *Beltzak* baziren, lurgabeak eta legetik kanpo ezkontzen zirenak eta jakina dirurik ez doterako. Hango musulmanek errespetuz Abd El kader emirak aipatzen zuten, frantsesen konkista urteetan, Dahra mendi horietan harpetan gorderik egon ondoren, bere azken gudukak eman baitzituen Sidi Muza, Sidi Aiza eta beste mendi gain eta zelaietan.

Agaren gainetik eta tribu federakuntzen buru Baxaga bazegoen. Baxaga Boualem bat oso famatua izan zen gerrate guztian bere harkiekin Uarsenis mendi osoa kontrolatu baitzuen eta gerrate bukatzean bere soldado guztiekin Frantziara erretiratzea kausitu baitzuen.

Gerratea hasi zenean, Aljeriak bere biltzartxoak zeukan baina horretan frantsesek nagusitasuna. Ezen bi hauteskunde kolejio asmatu ziren musulmanean irakurtzen, idazten jakin behar zen eta baserrietan, eskolarik ezaz, ez zituzten haurrak eskolatzen. Gerratearen bi urteren buruan deklaratu zuen Parisek, Aljeria Frantzia zenez, feudal sistema ezeztatzen zela. Frantses departamenduak aspaldian eginak ziren Oran (arabieraz Uharan), Constantine (arabieraz Kzentina), Alger (arabieraz Aldjezair), Orléansville (arabieraz El Asnam) baina islamaren baldintzekin ezin zen administrazio bakar izan. Laster konturatu ziren, gerla joan ahala, ezin zela dena frantsestu eta orduan musulmanen arteko egitekoez arduratzeko SAS administrazioa sortu zuten. Herrixketan bazituzten bulegoak. SASeko gizonak armarik gabe eta uniformedunak ziren. 1958.ko uztailaren 3. an bai-

zik, gerra bere laugarren utera zoala, frantses hiritartasuna eman zitzaion musulmanei eta denbora berean denei bozkatzeko eskubidea, jadanik frantses batzuek autodeterminazio hauteskundeak gogoan zituztelako.

Aljeriako gerla bete-betean zen soldado joateko ordua heldu zitzaidanean. Ordukotz biologia ikasketek eta nire konzientziak besteen hiltzea eragozten zidaten. Kontzientzia obiekzioa egitea pentsatu nuen. Gerra ministerioan euskaldun bat ezagutzen nuen. Elixagarai zalgiztar komandantearen ikustera joan nintzen. Hark esan zidan nahiz ez zen ofizialki Aljerian gerratea, obiekzioa eskatzen banuen preso sartuko nindutela eta beharbada bortxaz hara igorriko. Bere eskaintza izan zen *Affecté ministériel* bezala, Armadako Osasun Zerbitzuan sar nendin. Horrela eta Intendentzian zebiltzan soldado askoren gisa ez nuen «etsaien» tirokatzeko beharrik izan. Gainera mediku batekin *Assistance Médicale Gratuite* edo dohainik aljeriar zibilak sendatzen zituen lanetan denbora gehiena eman nuen.

Han ikusi nituenak eta entzun nituenak aipatu baino lehen, banekien bizpahiru iturrien bidez zer borroka zeramaten. Pierra amaren etxondoko Larraineko primuak lehen argitasunak eman zizkidan. Bera Espainiatik, Aljeriara eta hortik Italiara gerla egitera joan zen, gero Monte Cassinon zauritua Aljerera itzuli, lehen matxinada izan zen garaian. Aljereren «zango beltz», hango frantses, Kleber familian egon zen. Setifen gertatu errepresailak edo mendeku odoltsua kontatu ziozkaten. De Gaullek, Brazzavillen gerrate handiaren garaian hitzeman zien Afrikako herriei aliatuen alde jartzen baziren autonomia emango zitzaieela.

Aljeriako nazionalismoaren hasieran, ospakizun lotsagarria izan zen. Frantsesek 1930.an Aljeriaren jabetzea ospatu zutenean abertzale kontzientzia bat esnarazi zieten. Ospakizunak Khaled emirak abiatu asimilatze joera moztu egin zuen. Khaled, Abd El Kader gudariaren semeak uste zuen berdintasunera iristeko frantsestu behar zela, baina hango frantsesek ez zuten iragaitza hori batere gogoko, ezen denbora berean politika eskubide berdinak eskatzen zituztelako.

Ospakizun horiek musulmanak apaldurik eta lurra jorik utzi zituzten. Ospakizun horien ondotik gehiago azpimarratu zen musulmanak azpi jendeak zirela eta haien eskaera txikiak ere ez zirela kontutan hartuko. Ferhat Abbasek 1931.ean eta gero 1943.an “Manifeste du Peuple Algérien” horrekin, autonomiazale eta abertzale zen politika mobimendua abiatu zuen. Ferhat Abbas federalistegi izanki aljeriar iraultzarekin, baztertua izango da. Aljereren, 1935, Ben Badis buru, bildu zen lehen aldikoz musulman ulema edo koranzaleen batasuna, ezen frantsesestarekin islamaren galtzeko arriskua baitzekusaten. Egia esan urte haietan aljeriar abertzale sendimendurik ez bazen bizi-bizirik, musulman izatearena, bai. Orduan herriko aztiak esan omen zuten “frantsesek frantses Aljeriaren lehen ehun urteak ospatzen dituzte, baina ez dituzte bigarrenak egiten”

Europar eta Afrikan gerra isildu zenean aljeriar anitzek De Gaullek Brazzavillen 1944.ko otsailan agindu autonomia eta Italiako kanpainan hainbeste gizon galdu ondoren berjabetasun edo autogobernu zerbait emango zitzaieela amets egin zuten ezen Aljerian jarraitzen zuten % 10 ziren europarrak botere eta eskai-

nuen % 65 edukitzen. Frantses biltzarrean autonomiaren eskaera hori agertu zenean, hogeitun urte lehenago antikolonialista zen ezkerra ere kontra agertu zen. Aljeria Frantzia omen zen eta Afrikan Frantziak «mission civilisatrice» delakoa omen zuelako. Hor, noski, Aljeriaren autonomiaren aurka agertu ziren, euskaldun nortasunaren etsai agertu diren berdinak, frantses komunistak.

Oroitzen naiz, gerla horren ondotik, irakasle kide izan nuela, gero Marchais komunista buruaren idazkari zango-beltza (Aljeriako frantsesa) zen Martin. Arabieraz hitzegin nion eta ez zuen, han jaioa izan arren, hangoen hizkuntza ikasi. Hark zion nazionalismoek eta aljeriarrak batik bat, benetan klase borrokatik urruntzen eta bazterten zutela jendea. Orduan esan nion, Aljeriako kasuan frantses nazionalismoa ere baztertu behar zuela. Eta frantsesen betiko erantzuna. *Ce n'est pas pareil*. Ez da berdin. Eta prediku luze bat egin zidan Frantziaren laikotasunaz eta Aljeriari eman zion zibilizatzeko bidez. Gerotik jakin dut Paul Caballero Aljeriako frantses alderdi komunistakoak esan zuela 1945.an: *“Algerian independantzia eskatzen dutenak, jakinaren gainean edo ezustean beste inperialismo baten agenteak dira”* Komunistek uste zuten ipar amerikarrek frantsesen lekua hartuko zutela eta ez ziren konturatu Aljeriak Frantziak ezagutuko ez duen marxismo gabeko komunismo mota bat aplikatuko zuela. Sozialistak SFIO.koak ez ziren hobe izan. Alferretan Paul Alduy sozialista zenak koloniak federakuntza demokratiko batean sartzea eskaini zuen eta internazional sozialistaren iritzien kontra, SFIO alderdi horrek jakobino jarraitu zuen *“La France est une et indivisible”*.

Ezkerreko jakobinoen aurka MRPeke demokristauek nekez lortu zuten koloniek Frantses Batasuneko (Union Française) aholkulari biltzarren sortzea eta ez zuten lortu kolonien batzar horrek botere gehiago eduki zezan eta legebiltzar bilaka. Halere beren arteko ezin ulertuekin erreformista hutsak ziren.

UDSRean aldiz eskuin erditan, Mitterand zion *Errepublikaren barnean egonaz baizik ezin zitezela kolonietan erreformarik egin*. Marrokitarrek Mohamad V.ren itzulera eskatu zutenean, Mitterandek Si Bekairi erantzun zion. *“Hori sekulan? Ez horretan konda. Frantziak nahiago luke gerla egin”*. Mitterand kolonialista Poliziaren buru (1954-1955) eta Justiziaren buru zelarik (1956-1957) gogortu zen *“Aljeriako gerla”* eta torturatzen hasi. Koloniek federakuntza baten alde bazen De Gaulle bera bere alderdia RPF jakobino hutsa zen, beraz autonomia edo independentziaren aldeko bakarrak ezker muturreko gutiengoak ziren troskistak, anarkistak, PCI koak eta Rassemblement Démocratique Révolutionnaire alderdiak.

Kristauak gai horretan zatikatuak baldin baziren, Eliza katolikoko agintariak deskolonizatzearen alde agertu ziren: Mgr Chappoulie Lyoneko kardinalak 1948.an idatzi zuen *“Le combat des peuples colonisés est une cause juste et noble”*. Eta Pio XII.ak 1954.an *“Elizak autoktonoei zentzuzko nazionalismo baten zuzena ezagutzen die”*.

Bitxi da Elizak deskolonizatzearen alde agertzen zenean, Frantziako CGT a luzaz kontra. Bitxiena jendeak %45.a 1956.an negoziatzearen alde zelarik, UNEF

komunistek kontrolatu ikasleen sindikatoak %90 botoekin FLN arekin ez negoziatzea aldarrikatu zuten.

Orduan frantses batzuen gogoetan sartu zen Aljeria Frantzia zela, han milioi bat frantses zahar edo frantses berri zeudelako eta haien interesen eta pertsonen zaintzeko. Beraz autonomia ukatu zitzaien. Hori zen beharbada funtsezko arrazoia ezen Frantziari militar eta zibil gastuen artean sekulako defizitak eza gutzen zituen eta kolonietarik jadanik ezer onik ateratzen. Koloniak galdu ondoren frantses ekonomia askoz sanoago izan zen. Aljerian galdu ziren inbertsio gehienak frantses estaduarenak ziren eta pribatuak gutti.

Urrengo urteetan sortu zen demokratikoki autonomia lortu nahi zuten M.N.A. Mouvement National Algérien, Messali Hadj buru berjabetasun osoaren alde. Hau 1929.ko UNMNA (Union Nationale des Musulmans nord-africains) eta 1937.eko PPA (Partie du Peuple Algérien) delakoen ondokoa zen. Orduan lagunekin batzuetan Boulevard Saint Michel «L'Algérie libre» erosten genuen eta iruditzen zitzaien bretoi lagunei Francoren moduan portatzen zela Frantzia Aljerian. 1954.an jadanik Marrokok eta Tunisiak independentsia lorturik, ezkerak zion Aljeriaren kasua ez zela berdina, han %10 frantsesa zelako.

M.N.A delakoak uste zuten Aljeriak berejabetasuna demokratikoki erdietsiko zuela, baina FLN ekoek gogoetatu zuten 1945.ko saioaren ondotik frantses gehienak funtsean jakobino hutsak zirela eta indarrez baizik eta Frantziarekin hautsiz baizik ez zutela inoiz autogobernurik izaneren. Horretan arrazoin zuten ezen Indotxinako eskarmentuek eta ondokoek ez dituzte frantsesak aldatuko: XVII- XVIII. mendean sortu egitura zentralista arkaikoak gaur ere Europan gorde nahi dituzte eta frantses batasun inperialaren salbatzeko orduko alderdi berdinak ditugu eskualdekatzearen deszentralizazioaren aurka. ALN borroka armatuan sartu zen, 1954.eko azaroan Aljeriako leku guztietan matxinatu ziren, etxalde sakabanatuak erre, jende «txuriak» hil eta gendarmeriari eraso. Herrixka askotan politikoki “seien taldeak”, herri taldeak antolatu ziren, gero desagertuko direnak.

Aljeriako Dahra mendietara joan nintzenean ikusi ahal izan nituen frantse- sen etxe erreak, mahasti eta alor abandonatuak. A.L.N. “*Armée de libération nationale*” sortu zen gero F.L.N. *Front de libération nationale* izena hartu zuena politika adar bat sortuz. Xedetzat MNAk bezala ezkerago jarriz, independentsia osoa nahi zuten, eta oztopo zituzten MNA ko aljeriar demokratikak akabatu edo erbestera bortxatu. Eta gerrilla hasi zen. Aljeriako departamenduei uko eginez willayak sortu ziren eta bakoitzean *felaga* gudariz antolatu *katiba*, bata- lioiak.

ALJERIAR IRAULTZAREN LEHEN URRATSAK

Saiatu ziren, 1946.eko porrotaren ondotik, aljeriar abertzaleak demokratiko- ki borrokatzen eta M.N.A. (Mouvement National Algérien) sortu zen hain zuzen Parisen ezagutu genituen militanteak, *L'Algérie Libre* aldizkaria karriketan saltzen

zutenak eta katoliko integristek zaflatzen zituztenak. Ikusiz ez zela hoberik frantsesekin F.L.N. (Front de Libération Nationale) delakoa sortu zen; alderdi horrek 1954.ko Domurusantuz Santu, Guztien Egunean, baserrietan sakabanatu kolono etxe asko eraso zituzten, bizizaleak hil, etxeak erre. Horrelako etxeak eta mahasti abandonatuak Si Aliko lepoaren inguruan ikusi behar nituen. Honela abiatu zen Aljeriako gerratea: iraultzalariek *felaga* izenez ezagunak, mendietan, gudari taldeak *katibak* eratu zituzten eta herri guztietan «*seien talde*» izeneko abertzale taldeak antolatu. El Kahiran (Kairon) gudari eta politikoez GPRA. (Gouvernement Provisoire du Peuple algérien) antolatu zuten eta burua lehenik Ferhat Abbas eta gero Ben Bella izan ziren.

Bat batean Aljeria feudalismotik atera behar zela eta beraiei ezer galdetu gabe, aljeriarrei frantses naziotasuna edo hobeki erran hiritartasuna eman zitzaien. Nahiz musulman batzuk Frantziarentzat gerra eginik, frantsesazale ziren, baina haiek ere ez zituzten beren buruak frantses ikusten, haienztat musulman izatearen ukapena izanen baitzen. Hain zuzen gogoratzen naiz, geu jendeen sendatzen ibiltzen ginen batean, «Action psychologique» Armadako propaganda egileak 1960.an megafonoz «smala» edo errefuxiatu kanpamentu batean eseriak zeudenei galdetu ziela, hiru galdera egingo zietela eta zuti zitezen akort zirenean.

1. Aljeria Frantziaren zatia: Inor ez zen zutitu
2. Aljeriaren autonomia: frango zutitu ziren.
3. Elkarharremanak gordez independentzia: gehienak zutitu ziren

Ez zen Aljeriaren frantsesterik, ez eta feodalismoaren berpizteko biderik eta frantses milioi batek bederatziz milioi musulmanen gainean zuen boterea erortzera zoan.

ITSUSKERIAK

«Terrorismoak» eta «terroristak»

Lo patriota que resisteish a una armada d'ocupacion tant que n'a pas ganhat qu'ei un terrorista.

(Gilabert NARIOO, Per estar protestants)

Arrazoin du bearnes idazleak alemani bihurtzen ziren sasi-gudari frantsesak terrorista ziren halaber Aljeriako askatasunaren alde zegitenak, nahiz denborarekin *felaga* izena terrorista hitzari nagusitu zen. Niretzat izan zitezen frantsesak ala aljerriarrak, bi etsaiek terrorismoa erabiltzen zuten, uste baitut terrorismoak aurretik eskatu eskubideen berdintasuna ukatu ondoren, zibilei izuaren sartzeara haien hiltzeak eta deportatzeak, direla. Gerratea, orain, ez da militarren arteko zerbaite, bestearen ekonomia sabotatzea bidez desegitea litzateke «nausien terrorismoaren» aurpegi goxoena, baina errepresaliak dira, zibilei izu-mendekuak, batik bat gutiengoaren «terroristak» eta hor boterea daukalako gehiengoak esku-bidea omen du horretan ibiltzeko.

Izu-mendekuak

Zoritxarrez ez dago gudurik horrelako izu-mendeku edo errepresaliarik gabe. Lehen gerrateek jendeen artean gosea sortzen bazuten, badakigu Viking eta Huno delakoak eta beste batzuek jendeak izutzen zutela, baina badirudi europarrak gerra denboretan zibilei mendekatzea XX. mendeko ohitura txarra bilakatu zela, Hitler eta Mussolini, Franco, frantses militarrek eta besteek mundu guztiari bidea erakutsi die. Oradour alemanei bizkarreratzen dieten frantsesek, batzuetan Afrikan eta Asian berdin egin dute. Jendetasunaren aurkako gaizkiaren ize-nean, orain epaitegiak badaude. Frantses gobernu anitzek eskuetan zibilen odola eduki dute baina lurpean daude, epairik gabe, ohean hilik: Thierry D'Argenlieu, De Chevigné, De Gaulle eta Mitterand.

Ezagutu dudana gure auzoko batalioiean gertatu zen. Teneseko sektorean behin soldado ibilgailu karabana bat, lauzpabost kamion, half-track eta bi jeepak herri baten ondoan iragaitean tirokatuak izan ziren. Kapitainak manatu zuen auzoko Aduarean bizi ziren jende guziak akabatuak izan zitezten. Hala egin zuten, zahar, gazte haur, emazteki ala gizon denak hil. Kapitaina kasu horretan arrestatu zuten eta epaitua izan zen; gradoa kendu zioten eta Frantziara igorri, baina hori 1960.an bakegintza prozesua abiatu zelako eta ez aintzineko, "Opérations de maintien de l'ordre" delako baten barrenean ginelako.

Lehenago 1946.an ez ziren frantsesak hain ezteki jokatu. De Gaullek Brazzavilleko aldarrikapenean hitzeman autonomia Aljeriak eskatu zuen. Uste zuten Frantziaren eta Europaren askatzen isuri zuten odolaren izenean musulmanei politika heldutasuna ezagutuko zitzaizela. Egitasmo bat idatzi zuten frantsesekin. Egitasmo horren xedea botere moderno baten esperientzia ez zuteneri gobernatzen ikastea. Musulmanek onartu zuten, Frantziak ez. Frantses kolono batek, Poisson jaunak, erakutsi zidan esanaz "hau eman balitz ez zen sekulan gerlarik izanen". Frantses legebiltzarrak eta batikbat komunistak –orain bezala– eta beste ezkerter asko ere autonomiaren aurka agertu ziren.

Ferhat Abbasek federakuntza sistema batean Aljeriaren autonomia 1945.eko apirilaren 28.an eskatu zuen berriz. Alferretan. Beranduegi. Frantsesek Messali Hadj arrestatu zuten. Setif eta Gelman frantsesek aliatuen garaipena ospatzen zutelarik 1945.eko maiatzaren 8.an borroka armatu bat abiatu zen hirian aljeriarren manifestaldi bat gendarmek tirokatu zutenean. Musulmanek, arabe eta kabilek armak lapurtu, 103 frantses hil, etxe baztertuak erre, kolonoak hil. Orduan gertatu matxinada horren ondotik, gertatu ziren, De Gaullek berealaxe gogorki zigortua, zehatuak izan zitezten agindu zuen. Itsasotik bonbardaturik eta gendarmeriak hilik, Quillet entziklopediak ez du zenbakirik ematen, dio "oso odoltsua izan zela". Armadak dionez 1.000 bat gizon hil ziren Setifen, Gelman ez zen aztertu. Zahar, emazte eta haurrak ez ditu aipatzen. Larousek dionez 20.000 jende hil zen, noski aljeriar historiak dio 120.000 baina ibar harretan ez zen 50.000 jenderik eta sinistenago dut lehengusuak errana, baliman 40.000 inguru hil zirela. Errebisionista eta Nazionalisten artean ez dakit noiz jakinen dugun egia. Ez zen jendetasunaren kontra krima hori sekulan epaitu, orduko lehen buru De Gaulle zen, Milosevicek baino hil gehiago eragin baitzuen. Ez da erraz jakitea frantses marinak eta gendarmeriak zer egin zuten eta nondik

nora joan ziren agintzaileen manuak. Gerretan soldadoen hiltzea deitoragarria bada, zibil bat hiltzea anitzez gehiago. Pentsa milaka hiltzen direnean. Setifeko "Crime contre l'humanité" hori ez da sekulan epaitua izan. (Halaber Madagaskarren ekialdeko itsasbazterrean MDRM alderdikoak jazartu zirenean, De Cheigné gobernadore zenak, 18.000 hil zituen Tubert generalaren zenbakiz edo 90.000 *Liberté* komunista aldizkari baten arabera ere herrixkak bonbardatuz. Frantsesak batzuen errebisionismoa kondenatzen badute armadak bere historilari jakobinoekin eskubidea du egiteko. Halaber «frantsesek eman zibilizazioaren salbatzeko» Thierry D'Argenlieu, itsas almiranteak Haiphong hiria bonbardatu zuen, Ho Chi Minh, Frantziarekin berriz negoziatzera zoalarik eta autonomia onartzera zoalarik eta hori da Indotxinako gerraren eta zibil hilketaren erruduna, trankil fraidetegi batean hil zen Louis de la Trinité izenpean. Katedraleko atarietan ez dira falta infernua apezpikuak, Aita Santuak eta fraideak. Zoritxarrez ez dago infernuri eta historilari gehienek ez dituzte kondenatu).

Errepresalia egileak gerra irabazten dutenean ez dira epaitzen, galtzen dutenean bai: Oradur, Gernika epaitu ziren alemanek gerla galdu zutelako, frantses militarrenak ez dira kondenatu. Nola daiteke beste gisaz Napoleon diktatorea miresten duten herrian? Halaber nork eta noiz epaitu dira Aljeria askean integritas delata edo ez dela 150.000 zibilen hiltzaileak. Nola jakinen da GIAK ala armadak hil eta hiltzen dituen?

Mendekuak, apentzak ez du sekulan deus ere konpondu. Aberekeria hutsak dira. Haserrearen hirakinean egiten dira. Edo ongi kalkulatuak hala nola Ipar eta Hego-Ameriketako indigenoen garbitzea. Askotan mendekua beste mendeku baten ondokoa da. Horrela da gertatzen Txetxenoekin, ehundaka errusiar hiltzen badituzte ere, ez dute ordaria inoiz kausituko ehun milaka hil baitira Tetxenian zibilak. Huttu eta Tutsiren arteko gatazkak orain gogoan ditugu eta nola hiltzailei armak eman ondoren, frantses gobernauak ez zuen deusik egin sarraskia gelditi zedin. Oraingo gerretan soldado baino anitzez gehiago zibil hiltzen da eta lehen Attilari egoitzen zitzaion ankertasuna munduko hamarnaka herrietan erabiltzen da.

Algerian ez ziren jadanik frantsesak bakarrik mendeku egile. Gure Taogriteko mendixkaren beste aldean beste mendixka batean bazen auzo bat bere lurretan egon zena, baina autodefentsa baldintzekin. Gau batez felagak hara sartu ziren, alegia kolaboak zirela eta hiru etxeetan zeuden jende guztiak hil. Baliteke beste itsuskeria handiagoak gertatu zirela gerra hartan, baina ezagutu ditudanez naiz mintzo. Gainera hemen luzaz aipatuko ditudana beste arrazoiek ehun milaka zibil hil zituen, baten eta besteen tiroen artean hartu zibilak, gerrarengatik gosez edo eritasunez hil zirenak, eta hiltzen ikusi nituenak.

Torturak eta torturatzailak

Etiam innocenti cogit mentiri dolor
(Publius Syrius)

Aspaldian errana errugabeak hogengabeak minez zernahi aitortu dezakeela, eta orduan tortura ezertarako dela. Zubereraz diogu *zurraztea*, gaztelaniak, *dar*

palizas eta frantsesak *passage à tabac*, euskaldunekin ere erabili dena Frantzia, *Interrogatoire musclé* edo Ukaldikako galdeketa, ere deritzo. Beste bat da poliziak, zutik egonaraziz, taigabe galdetuz gaizkiegileekin darabiltzan metodo bakunenak, arruntenak, baina iraultzalari, terrorista eta sasi gudariekin, urruna-go joan daiteke. Historian barrena paganoek kristauekin, kristauek pagano eta heretikoekin tortura gogorra goak erabili dituzte ez bakarrik aitorrarazteko, baina aitortu ondoren ere lehen Elizaren izenean mendekatzeko eta orain poliziaren izenean edo.

Ez dakit munduan zertan den torturaren erabilera, duela hogeitau urte ONUn dauden 47 herrietan erabilia zen eta European bertan tortura gogorra Espainian eta tortura morala beste herrietan. Aljerian eta beste askatasun borroka askotan ez dago gerra frenterik. Felagak ez ziren behinere, herri batez edo herrialde batez jabetu. Sasi-gudarien gisa gauaz agertzen eta egunaz itzaltzen. Gudu klasiko baten ikuspegitik Aljeriako gerla ez zuten irabazi, baina politikoki eta psikologikoki bai.

Frantses armadan Aljerian bazen sail bat informazio bilketaz arduratzen zena: O.R. edo “Officier de renseignements” delakoa. Officier edo aitzindari hori berdin sarjentoa izan zitekeen. Gehienek laguntzaile bat edo bi zituzten. Presoak zaintzen, eta mintzarazten zituzten, eta askotan akabatzen. O.R. eko horiek gehienetan ez zuten inolako prestakuntzarik eta errezetak elkarri irakatsiz, ahalik eta min handiena eginaz, torturatzen zuten. Torturazaila horik, sarritan ez ziren ofiziozko militarrik «appelés» edo kintakoak baizik. Aljerian egon diren soldado askok esango dizue ez dela horrelakorik gertatu han zeudenean. Noski, batalioi batek bospasei posta zuenean, bakarrik P.C. zegoen lekuan torturatzen baitzen.

Tortura aipatzen zuten hiru ipuin idatzi nituen 1960.an 1961.an Bat Eganen argitaratu zen “Kalaa gaineko haizeak”. Orduan Pariseko euskaldunen *Elgar* aldizkarian, irakurleak erdaldun zirelako beste baten frantses itzulpena eman nahi izan nuen. Ezezkia izan nuen, aldizkari haren kontrollean Pierre Ibarrondo sozialista goi funtzionarioa zegoelako eta jaun hark abisatu ninduen sekulan argitaratzen banuen horrelakorik, nire lana galaraziko zidala. Egia da Aljerian aferrak mintu eta gaiztoratu zirenean Guy Mollet sozialista zela Lehen ministro eta Ibarrondo hori haren gabinetekoa. Ibarrondok nausiaren ospea ongi zaindu behar zuen. Urte haietan tortura abiatu zenean F. Mitterand zen justiziaren buru.

Saioak 1970.an Aljeriaz zerbait argitaratu zidan eta hanitez geroago *Hor Dagok* 1977, “otsoak gara” erdizka asmatuko kontakizuna, gertatutako baten gainean egina. Hor ere musulman baten ikuspegitik kontaktzen dudalako batzuk uste izan dute itzulpena zela. Itzulpena izan du baina Eva Forestek gaztelaniaz argitaratu ipuin bilduma batean. Idazlea ez da beti bere pertsonaia, baina euskaldun kritika ezjakinek ez dakite oraindik.

Henri Allègrek “La Question” liburuan Aljerian egiten zen tortura salatu zuen eta liburua “dans le pays des droits de l’homme” delakoan, torturaren aurkakoa baitzen debekatua izan zen. Baina Ausartresse generalak 1997.an torturaren

alde azaldu denean ez dute epaitegietara deitu. Egia da ahoz ere lehenagotik Massu generala itsuskeria horren erabiltzaile eta alde agertu zela. Gerlaren amaiera zela eta gaur aipatzen ditudan bi gaiak zerabilan artikulua Sud-Ouesti bidali nion. Noski “presse libre” ko jende horiek ez zuten argitaratu. *Le Journal du Pays Basque* Baionakoak bai, baina nahiz lekukotasuna zen, beldurrez edo iritzi moduan argitaratu zuten.

Zer ikusi nuen? Zer entzun nuen han?

Banekien presoak torturatzen zituztela. Ofiziozko sarjento eta gizon jator batek, kontatu zidan nola ezin zuen lorik egin, O.R.en alboan baitzeukan bere logela. Komandanteari kexatu zitzaion. Batalioiko zerbitzu bati kritika egitea diziplina kontrakoa zela eta gaztigatua izan zen. Behin eri zela-eta ezin jaikiz nire erizain talentuak eskatu zizkidan. Haren logelari buruz joan nintzen baina ate txarretik sartu. Han lurrean, lur hutsean jarria abere baten gisa lotua eta ahoan hari bat beste bat barabiletan ikusi nuen zapartaka ari, elektrodak generateur edo «gégéne» delako bati lotuak ziren eta laguntzaile batek eskuko bat inguratuz elektrizatzen zuen. Alboan arabe laguntzaileak galderak egiten zizkion. Atera nintzen. Aski ikusirik gaixoaren gana joan.

Geroago sarjento horrekin isilpeko bat egin genuen. Etorri zitzaidan ikustera alegia preso zegoen *muzbel bat*, edo herrietako felaga laguntzaile bat, bi bala sabelean utzi nahi zutela, gau osoan, zakur baten gisa hiltzera. Joan nintzaion barbiturikoak eman. Lokartu zen. Biharmunean hilik aurkitu zuten.

Hainbeste min egin ote behar zen hain guttiren jakiteko, gero torturatuaren akabatzeko. Inkizizio laikoa! Askotan hatzeman zutena ez zen felaga, muzbela baizik, erran nahi baita arma zahar batekin felaga laguntzen zebilana eta noski felaga horien berririk ez zeukana, zeren felagak, gauero lekuz aldatzen baitziren. Alferrikako galderak egiten zitzairen, edozeinek zekialarik Dahra mendietan non zeuden harpeak, non zeuden arma erreserbak eta ospitaleak lurpean torturapean galdetzen zieten.

Behin Aljeretik etorri zitzaigun O.R.eko nausi bat, aditua, kapitaina. Kontatu nizkion alferrikako torturak eta berak esan beharrik gabekoak zirela galdeketa gehienak. Horrela min egiteak jendeari duintasun osoa kentzen ziola eta abere moduan jartzen. Berak, omen, beste metodorik zeukan “la pression morale” ziona eta Espainian erabiltzen dena, familiaren txantaia, beste lagunaren txantaia, arrestatu lagun edo askaziak erakutsi ondoren, grabatu oihu eta intzirin batzuk entzunaraziz.

Beste behin oroitzen naiz O.R. parean igaranik eta bost lau piketetan presoak loturik ikusi nituela

Gero kontatu zidaten zer egin zuten:ofizier berri bat postura izendatua zenean, heldu baino lehen esaten zioten eta “bizutage”ren burla moduan, O.R. izanen zela. Presoak torturatu beharko zituela. Bestalde nahiz mendiskaraino errepidea

izan ilun nabarrean, berebiletik jaitsi-eta jaitsi eta aldapan gora postura eroaten. Patioan lau presoak loturik zeuden eta haien aitzinean, heuren aurrean brasero-etan kurrikak, trukesak gorritzen ari. Alboan interpretea zegoen galderak prestik eta ofizierak printzak hartu bezain laster preso bat aitortzen hasi zen eta komedia bukatu.

Torturatzaillea “ofizioa” ala afizioa denez ez dakit, nahiz horrelako bi gizonen adibideak ikusi nituen. Lehena gizon sendo, gotor, zaila zen, baina felagaren ondotik alferretan ibiltzeak asperturik O.R. bezala bere burua eskaini zuen. Ez zuen iraun, loa galdu, jateko ganoak ere. Geroago eta zailago izan zitzaion jarraitzea: O.R. izateari utzi eta gudari komandora itzuli zen. Haren ondotik Manzano izeneko “zangobeltza” jarri zen torturatzaille. Arabiera zekien. Mutil goxo, isil, begi apal, erraz gorritzen zena berettera, ikusi genuen O.R. jartzen. Hark zerabilan sadismoaren berririk ez nuen jakin nahi izan, baina aski zen musulman bati Manzano izena erratea ihes egin zezan.

Entzun dudanez, nahiz gure mendian ez omen gertatu, batzuek “Egurketara” eroaten zituzten presoak. Palaz, aitzurrez, eta aizkoraz kamio batean kargaturik. Bizia salbu izango zuen batek beste bizpalau lagunenez hilobiak egiten zituen, gero lagunak banaka banaka ziloen bazterrean fusilatzen eta salbatu zenak lurrez estaltzen. Batzuetan egurketatik landan zerbait zekianak zerbait aitortzen zuen, urrengoan berriro zuloegile izateko. Gero burua urez bete ontzi batean sartuz erdi itorik eradukitzea ere ba omen zen. (Erran behar da Zuberoan nekazari protestanteen konbertitzeko katolikoek metodo berdina zerabiltela eta berdin Aleman nazien Gestapoak). Hurak ez nituen ikusi entzun nituen aipatzen.

Torturaren estakurua eta zuribidea zen, ez zirela felagak zibilak eta gainera gaizkiegileekin edozein bide on zela aitorarazteko, bere aldeko gizonen biziaren salbatzeko. Beraz tortura gerlaren gorabehera bezala dioten generalak ohean lasai eta trankilo hilgo dira.

Aitortu behar da gerra horren aurka ziren asko iritiz aldatu zirela, lagun ona hilik gertatu zenean. Buruz burukako guduetan ez zen mendeku pizle, baina enboscada batean gertatzen zenean higuina, gorrotoa handitzen zen eta bakezalea, hiltzailea bilakatzen eta batzuetan torturatzaillea ere. Ezdakit mendekuz ez ote zituzten mendietan aurkitu musulman zibil banaka batzuk hiltzen non ez zen astokeriaz. Behin, lupuak sudurra jandako andre baten sendatzen ari nintzela, batek oihu egin zidan. Kasu honek lepra edo legenbeltza badu. Erantzun nion ez zela legen beltza lupua baizik eta ezpainak salbatu nahi nizkiola; orduan soldadoak esan zidan behin mendian horrelako andrea ikusi zutela eta legenbeltzaren beldurrez tirokatu.

Gerla horretarik bi milioi «frantses» gazte igaro ziren. Askok ondotik neurosiak edo alkoholismo berri baten gaitzak garatu. Postu batean gogoratzen naiz fusil-mitrailadora tiraria, eskola gabeko, adimen laburreko morrosko goibel bat zela. Horrelako batean burua galdurik lagunenez barraka eta oihalpetara tirokatzten hasi zen. Harrapatu zuten eta Aljerreraino lagundu nuen. Aljeretik Frantziako eroetxe batera igorri zuten; halaber oroitzen naiz mutil bat etorri zitzaidala

esanaz bildurra zeukala felagak harrapa eta barrabilak moztuko zizkiotela. Nik esan nion leienda zela, nahiz geroztik jakin dudan gertatzen zela. Hark, ordea, ez zuen beldur hori gairitu eta egun batez Frantziara itzul zezaten bere gelan pistola mitrailadorearekin tirokan hasi zen eta eroarena egin. Erdietsi zuen, koskoilak osorik, Frantziara itzultzea. Mutil minberek luzaroan zainak, nerbioak eri egon ziren, nekez lo egiten, gerla amets eta gerrate guztietarik salbatu direnekin gertatzen ohi den bezala, bizirik eta osorik itzultzean, batzuek beren buruez beste egin.

DOHAINIK SENDATZEN

Komandanteak behin deitu ninduen, alegia musulman zibilez gehiegi arduratzen nintzela eta erran nion nire gurutze gorriko karta erakutsiz "Assistance Médicale Gratuite" animatzailea nintzela. Hark ordea zion erremedioak soldadoekin bakarrik erabili behar zirela. Eman zidatenez ia beti ez nuen militar txapela erabiltzen eman zidaten txexa baizik. Hasieran mediku militarra nuen nagusi eta hark denbora paperen betetzen igarotzen zuen eta nahiz ez nintzen mediku musulman zibilen ardura handiena utzi zidan; gero lan onik egin genuen ondotik etorri zen kintako "médecin appelé" delakoarekin, batik bat ume erien salbatzen.

Herrixka bildu batzuk izan ezik, mendiko etxe eta herrixka gehienak laborari eta artzainez hustu ziren, eta etxeak desegin bai otsez felagak lagun zetzaketela. Jendeak, alorrak, etxe abereak iturri onak galdurik, ordokietara jaitsi eta *regroupement* edo "smala" izeneko konzentrazio lekuetan elkartara bildu zituzten. Beste aitzakia izan zen herrialde hustuak artilleriaz eta hegazkinez errazago bonbardatzea. Hor alanbraz inguratu herrian gauaz ateak zerratu behar zituzten. Gure smala handiena El Asnameko (Orleansville fr.) ibarrean zegoen. Hor zaharrak, emakumeak, haurrak lurrezko eta lastozko etxeetan gaizki bizi ziren. Ia bi mila jende zeuden hor. (Aljeria orotara milioi bat jendez goiti). Astero bisita bat egiten genien eta gero gai zirenak, oinez edo astoz, merkatu egunez gure mendiko gainetara artatzera jiten.

Bisitaren egitera heltzen ginenean Smalako plazaren erdian beti ehun bat jende lurrean jarriak ikusten genituen, zaharrak, emazteak haur txikiekin, gazteak. Beste bi erizainekin eta medikuarekin lana sailkatzen genuen eta esaten nien "*mtal hainin hana*" begientzat hor, zutitzen ziren eta erizain baten gana joaten. Batzuetan hogeita hamar bat eri, adin guztietakoak etortzen ziren gure gana, errautsak begietako gorridura emanik eta hortik betezpalean eta kornean euliek trakomaren birusa ereinik. Kolirio batekin erredura ezitzen eta garbitzen genituen eta gero, ordu baldin bazen, aureomizinarekin sendarazten. Beranduegi zenean itsutzen ziren. Beste tanda bati genion, "*mtal ras mena*" eta buruan burusoiltzen zituzten tinak eta ezkabiak sendatzen. Erremedioa baino lehen buruan zeukaten zikin azala motorolioz biguintzen genien eta larrua agertzen zenean, gentiana morea erremedioa ezartzen. Azken hilabetetan ere pilulak bagenituen, larruaren pHa kanbiatuz bat batean buruko minkurak galarazten zituztenak.

Medikuarentzat “*batan*” eta “*ludja*” zutenak, hots toxikosidunak bereizten genituen. Eta nundik zetorren gaitza? Smala, ibai ertzean zegoen. Ibai uraz kanpo ez zen besterik. Ura lohi zen. Gaztettoek eta haurrek Damajoanak barrakak eta plastikoak ur lohiz betetzen zituzten eta astoen bizkarretan kargatzen. Egun osoan katea zebilen. Gero aire librezko lurrezko zisternetan husten eta ura pausatzera uzten zuten eta azaleko ura hirakin ondoren baizik ez erabiltzen. Pentsa bero handietan nola zaindu haur txikiak ur zikin hartarik edatetik? Ume zaharra-goak lan zuten eta jostatzen zirenean batzuetan ez ikusten haur txikia ur zikin edaten. Aldi bakoitzean eta batik bat udan toxikosi kasuak genituen hamar bat. Batzuek onartzen zuten ospitalera igortzea hirian ezagunak zituztenean, besteek behin edo beste ezezkoa ematen eta ihesi egiten. Handik bizpahiru egunetara hiltzen zen haurra.

Bi aldiz potikoak gurekin eroan genituen. Oroitzen naiz kasu latz batez. Hau ez zen oso txikia 7-8 urte zituen. Gurekin ekarri genuen azokan jantziak erosi eta zorritz beteak ziren bereak erre, baina hori baino lehen gau bat pasatu nuen erloiuarekin bi oren guziz “*sérum physiologique*” sabeleko larrupean zistatuz, diarrea eta goitikekin idortua baitzen, oroitzen naiz zein zaila izan zitzaidan larru zimeldu gogortu harretan, orratzaren sartzea eta lekuan utzi nion esparadrapoz loturik. Gero hiru aldiz tifomizina antibiotikoa txertatu nion eta biharamenean erne zegoen, baina sabelekoaren sendatzen aste bat kostatu zitzaion.

Hirurgarren tanda batean “*ene eriak*” edo “*nire gaixoak*” tuberkulosi mota guztiak zituztenak, ziren. Biriketako tuberkulosirako aste baterako, karta zutenei, PAS eta Rimifon ematen nien. Medikua ez izanez nire ardura mugatua zen, sumatzen nituen kasu berriak medikuak zituen ikertzen eta diagnosis egiten. Gangliotako tuberkulosia zutenak artatzen kintako medikuari sendaketa bitxia erabiltzen ikusi nion: materialiaz, sornez beteak ziren anpola husten eta hexoseptoplix errautsaz estaltzen, gero gorago aipatu errezeta berdinak. Tuberkulosidun gehienek frantsesez zerbait zekiten, nonbait Frantzian lan egin ondoren kutsatuak. Malaria ere bazegoen, baina horretarako ez geneukan aski sendagailu.

Gerrateak eta smala lotsagarrietan jendeen bilketa horrek eritasunak areagotu, gehitu baizik ez zituen egiten eta noski frantses armadako, baita hirietako frantses medikuak joan zirenean gauzak ez omen ziren hobetu ekarri zituzten kanpotar sendagileak, batzuek errezetak errusiar zirilikoz idazten zituzten edo magrebiarrek siriarei ulertzen ez zien arabiera batean. Smala horiek sortu langabetuen ostea eta osakidetza zerbitzurik ezaz, lehen askatasun urteak zail egin behar zituen. Oraindik erizain gabez ospitale berri batzuk zerraturik dira.

Bortxaz errefuxiatu jende horiek, gerrate guztietan bezala, eritasun asko harrapatzen zuten, mendietan zeuzkaten ur garbiak, janari sanoak, eta eguraldi goxoagoak galdu zituztelako. Behin biologia irakasten nenbilela medikuntza ikasten zebilen neska batek aipatu zuen ez zekiala bere “*terreno*” ikastaldia nun egin? Nik esan nion, Aljeriara joan zedin. Han ikusiko zituela Frantzian bakan ikusten zirenak eta nekez ezagutzen. Askietsia eta harriduraz itzuli zen. Gerratea bukatua zen, baina esan zidan hirietako frantses medikuak eta armadako dohanik sendatzekoak joanik jendea oso gaizki egon zela tifus eta tifoide

eta bariola edo baztangak ikusi zituela non nahi, beste trakoma, tuberkulosi eta abarrekin.

Ez nuen *taieb* edo “jainko txipi” edo “daunatua” sendatzailerik ezagutu. Behin *taieb* batek beso hautsi batentzat gureak baino ederrago ziren ezpalak jarri zituen, bestalde guregana etortzen zirenak etxeko lehen artak ez zituzten gaizkiegi egiten. Adibidez sua lurrean egiten baitzen eta oztoporik gabe haur txiki bat hurbil zitekkelako, usu, haurrak egarriz, ur hirakinarekin erretzen ziren. Erredurari jendeek kafearen ondoko patsa ezartzen zioten herskailuaren azpitik eta erradura garbi garbia egoten zen eta mina ontzen. Bestalde konturatu ginen zein erraz sendatzen ziren gure aitzinetik inoiz erremediorik hartu ez zutenak. Gure gaixoek ordea ez zuten ahoko sendagailuetan sinesten, guri beti eskatzen zigten beren dialektoan “*diruli el libra*” Egidazu, pikura, indizioa!

Ene gerla, nire gerrate hau bitxia izan da. Ez dut inor tirokatu. Saiatu naiz jendeen sendatzen. Eta hala nahi nuen izan zedin. Argi da anitzek ez dutela nire suertea izan eta gogoz kontra borrokatu direla. Batzuek pentsatuko dukete frantsesentzat propaganda egiten nuela, baina ez dut uste, ordukotz edukia hor zen eta hordagoa hurbil. Bagenekien bankuek eta industrialek Aljeria utzia zutela eta ez zirela behinere gehiegi Aljerian kokatu. Zangobeltz aberatsek beren ontasunak aizolbean Frantzian zituztela eta amerikarrak eta errusiarrek FLN en alde izanki, «Frantzia handiak» burua makurtu beharko zuela.

Garai hartan ez zen erran behar Aljerian gerla bat bazela, lehenik «opérations de maintien de l'ordre» edo horrelako polizia eragiketa batzuk zirela eta geroago «Pacification» edo bakezaletzea. OASa agertu zen Aljerian «Algérie française» oihukatuz nire hango egonaldia azken egunetan. Eta gure mendiska gaineko herriskan, OASen aurkako manifestaldia antolatu zuen herriko kabila batek oso trebeki frantses ikurrina eskuan eta oihuka «Ici c'est l'Algérie algérienne» Hemen Aljeria aljeriarra da. Aljeriak ez ditu bere zauri zahar guztiak osatu. Aljeriarrek Indotxinan frantses armadan edo FLN ean borrokan ikasi zituzten jokabideak ez dira galdu. Frantziak hor bere «zibilizazioa» erein du eta armada delarik Aljeria horren botere nagusia, orain kontatu ditudan itsuskeria guztiak beren artean egiten dituztela.

Euskaldunok, torturak izan ezik, badakigu oraino zibilen bizkar borrokatzen, ezen ETAK ehundaka «etsai» hil baditu beste horrenbeste «ustegabetarik» erruga-beak ere. Noski guk ez ditugu estaduen terrorismo ahalak, milaka jenderen hiltzeko. Hogeigarren mendea izan da Estaduen terrorismoa garatu duen aldia. Gerrak bahituak, bonbardaketetan hamar milaka hil ziren zibilak: Dresden, Hiroshima, Nagasaki eta Tokion. Gero genozidioa ere garatu zen: Ata Turk armeniarrek, Hitler juduak, Stalin poloniar, ukrainiar, tartariar, txetxeniar, Pol Pot herritar kanbodiarrak, zibilak milioika hil zituzten. Bai, Hogeigarren joana, progresuaren, aitzinamenduaren mendea izan omen da.

Lur gosez edo inperiokeriaz argentinarrek Patagonian eta brasildarrek Amazonian berriki, amerindiar herri txikiak suntsitu zituzte, Sadam Husainek 1988-1989 urteetan kurdiarrak kimiaz hil eta israeldarrak palestinarrei terrorismo

bidez lurrak kendu, etxeak suntsitu. Noiz arte? Nun dago itxaropenik? Ba al dago munduan, parada duenean, horrelako itsuskeriarik eginen ez duen herririk. Gandhiren herria ere kutsatua da. Zenbat iraultza ez da diktatura bilakatu beren ideien inposatzeko! Bakea ez ote da izpirituen, arimen, gutiengoen zapaltzailea eta gerra heuren gorputzen hiltzea. Nortzu, zenbatzu hasiko dira indarkeriaren behin betiko baztertzen? Ala gizonaren funtsean dago?

Algerian zer ikasi dudan? Arabiera apur bat hitzegiten, hiltzera zoan eta jantziz, bizimoldez Palestina zaharraren itxura zuen gizartea ikusi dudala. Hango itsuskeriek lagundu nautela, Euskal Herrian ere, bortizkeriaren aurka izatera, ezen etsaiarekin saiatu diren metodoak, askatasuna lortzen denean, herritarrei bere ideien gainjartzeko erabiltzen jarraitzen delako. Azkenik iritziak iritzi badakit nondik dabiltzan iraultzaren izenean izua darabiltenak eta estatu baten, gobernu baten, armada baten eskupean gertatzen den izu latzagoa. Militarrek beren artean gauzak konpon balezate zibilek eskertuko liokete. Halabiz.

RÉSUMÉ

Je rappelle que je décrivis l'Algérie en guerre dans un livre écrit en basque en 1962, *Aldjezairia askatuta*, publié partiellement entre 1962 et 1970, totalement en 1977 et les pressions subies par un haut fonctionnaire socialiste pour m'empêcher de le faire.

J'ai résumé l'état de la société algérienne du féodalisme des campagnes (Caid, Aghas, Bachagas), de la fausse mixité politique des villes, des musulmans citoyens de seconde zone, du colonialisme considéré comme un faux respect des sociétés locales pour les maintenir dans la dépendance en freinant leur instruction dans leur langue et dans leur culture, leur barrant l'accès aux professions libérales et au pouvoir. J'ai rappelé comment les élèves algériens furent déposés de leurs terres par des colons européens cultivateurs.

Cette étude se veut, aussi, à la fois un rappel de l'origine et des mésaventures du nationalisme algérien de 1930 à 1962, de l'attitude des différents partis politiques hostiles à l'autonomie de l'Algérie, PCF (anciennement anticolonialiste), SFIO, UDSR, RPF et de l'attitude plus nuancée du MRP, la position favorable à la décolonisation des partis d'extrême-gauche et des plus hautes autorités de l'Eglise (Cardinal Chapoullie, pape PIE XII). Je stigmatise particulièrement l'attitude colonialiste permanente de François Mitterrand tant vis à vis des Algériens que des Marocains et sa responsabilité non négligeable comme Ministre de l'Intérieur (1954-1955) et Garde des Sceaux (1956-1957) dans des périodes où la torture se pratiquait sciemment en Algérie.

Il est rappelé qu'à l'occasion du centenaire de l'annexion de l'Algérie par la France en 1930 il y eut une double réaction des Algériens au maintien de cette colonisation. Réaction des ulémas réunis à Alger en 1931 et premières demandes d'autonomie de Ferhat Abbas à la même époque. Les Algériens d'alors pensèrent que d'avoir versé leur sang pour libérer la France et l'Europe leur don-

nerait le droit à la reconnaissance d'une maturité politique. La lutte armée du FLN est expliquée par l'intransigeance jacobine de la majorité des métropolitains et de la quasi totalité des Pieds-Noirs et par l'incapacité de De Gaulle à respecter ses promesses faites à Brazzaville en 1944.

Suit un bref historique de l'origine et de l'organisation du FLN et des conditions du combat de la guérilla (Willaya, katiba, fellaga, mouzbel). J'insiste sur la victoire surtout psychologique et politique des nationalistes algériens, du rôle du GPRA et de l'opinion internationale dans la cessation des combats en Algérie.

Le cœur de ma communication porte sur des témoignages des atrocités vues ou entendues au cours de mon séjour pendant la guerre d'Algérie. Je témoigne avoir vu un cas de torture dans un service de l'O.R. (officier de renseignements) et entendu fréquemment les bruits correspondants. Je tâche de démontrer l'inutilité de ces procédés avilissants pour la personne humaine et qui relèvent d'une forme de terrorisme. J'esquisse un portrait de deux bourreaux, de l'un qui malgré sa force physique ne put se maintenir dans cette pratique et de l'autre freluquet qui réussit fort bien. Je rapporte également la discussion que j'eus avec un responsable de l'O.R. venu d'Alger et qui préférait la torture morale et la fatigue comme moyen d'interrogatoire.

Je cite également un cas de représailles contre un village du secteur de Ténès voisin du nôtre et de la condamnation exceptionnelle du capitaine qui en donna l'ordre; à l'occasion je rappelle les répressions sanglantes de Sétif et Guelma, qualifiées de «frappes ponctuelles» dont j'eus connaissance par un soldat de la guerre d'Italie de notre famille, crimes contre l'humanité, non jugés par décès dans leur lit des grands responsables. Ce début de guerre fut déclenché par une répression brutale d'une manifestation à Sétif en faveur de la libération du chef nationaliste Messali Hadj. Je rapproche cette affaire du comportement de l'amiral Thierry d'Argenlieu bombardant Haiphong au Nord-Vietnam et la répression du soulèvement malgache par le gouverneur De Chevigné et ne me prononce pas sur le révisionnisme qui au nom de l'honneur de la France ou de la gloire des colonies libérées, tourne autour des chiffres des victimes.

Je raconte ensuite mon séjour comme Infirmier-major du Service de Santé et l'Assistance médicale gratuite que j'eus le bonheur de pratiquer, avec un médecin appelé, dans les regroupements ou smalas et dans quelques villages militarisés. Je décris les maladies et les soins que nous donnions aux populations déportées qui, dans les regroupements, vivaient dans des conditions d'hygiène difficiles.

Les maladies principales que j'observais alors furent la tuberculose, les dysenteries et toxicoses, les trachomes, les teignes, les infections puerpérales, diverses maladies de peau. Nous savions que la population en première urgence recourait aux *taiebs* et d'après quelques observations que ceux-ci n'étaient pas des ignorants et que nos remèdes rudimentaires de base et nos antibiotiques avaient un effet certain sur des populations non saturées de médicaments.

L'étude s'achève par des considérations personnelles sur les horreurs du XXe siècle (Hitler, Staline, Pol Pot, Sadam Husein). J'évoque les victimes civiles, otages des bombardements (Dresde, Hiroshima, Nagasaki, Tokio). La terreur utilisée par les Argentins, les Brésiliens, les Israéliens pour voler des terres aux autochtones.

En Algérie je pus apprécier d'avoir connu une société rurale montagnarde encore très solidaire, connu la culture algérienne, appris un peu d'arabe dialectal et n'avoir pas eu besoin de tirer un seul coup de feu. Pour la connaissance du pays d'autres circonstances eussent été meilleures. Biologiste, non violent, basque, l'expérience d'Algérie me montre les avantages et les inconvénients de la lutte armée. Avantage initial devant l'intransigeance des dominateurs, des occupants, des colonisateurs; inconvénient qu'une lutte trop longue donne des habitudes de violences qui se maintiennent, fréquemment, une fois la liberté conquise. Combien n'a t-on pas vu de révolutions qui pour imposer leurs idées ont sombré dans la dictature (Napoléon, Staline, Mao)! Combien d'états tels la France n'ont-ils été édifiés que par la conquête! Bien des pays, faute d'opportunités, n'ont pas commis d'atrocités! La paix est souvent une oppression triomphante qui écrase les âmes, les minorités et la guerre l'occasion de tuer leurs corps en massacrant les civils. Qu'il est difficile d'être non-violent.